



ALKIZAKO UDALA

## **UDALBATZARRAK 2023ko MARTXOAREN 7AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

2023ko martxoaren 7an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.00etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Inaki Irazabalbeitia Fernandez  
ZINEGOTZIAK : Jose M<sup>a</sup> Aranzabe Urruzola  
Concepcion Soria Legua  
Gillermo Jesus Otegi Zubillaga  
Koldobika Jauregi Zinkunegi  
Unai Sorarrain Urruzola

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DU: Shrabani Aranzabe Pita

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespenak.**
- ✓ 2023ko urtarrilaren 31an egindako ohiko bilkuraren akta.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. Alkizako udaleko langile publiko izateko hautaketa-prozesuetan bitarteko elektronikoen bidez erlazionatzeko betebeharrak ezartzen duen Ordenantzaren onespena, hala bada.**
- 5. Bake epailea eta bere ordezkoa hautatzeko deialdiaren onespena, hala bada.**
- 6. Tolosaldeko landa garapenerako elkarteari, TOLOMENDI-ri, 2023 urteari dagokion ekarpena burutzea.**
- 7. Alkizako udala eta Aiztondo Klasikoa batzordearen arteko lankidetzaren hitzarmenaren onespena.**
- 8. XIX. Aiztondo Klasikoa "Patxi Alkorta memoriala"-ri 2023 urteari dagokion diru-laguntza burutzea, hala bada.**
- 9. Tolosaldeko Komunikazio Taldeak "Ataria", aurkeztutako 2022 urteari dagokion diru-laguntzaren kitapena onestea, hala**



ALKIZAKO UDALA

bada.

**10. Eudel-ek eginiko gomendioaren onespena, 2023ko ekitaldirako langileen ordain sariei buruzkoa, hala bada.**

**11. Berandoainen dagoen ur depositua konpontzeko egin diren impermeabilizazio lanetan ezusteko lanen onespena, hala bada.**

**12. Danena txirrindularitza elkarteak eginiko diru-laguntza eskaeraren azterketa.**

**13. Beste batzuk**

**14. Mozioak, erreguak eta galderak.**

**14.1. Martxoaren 8a, emakumearen nazioarteko eguna dela eta Erakunde adierazpenaren onespena**

### **LEHEN PUNTUA**

#### **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENAK**

- 2023ko urtarrilaren 31ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 7/2023tik 16/2023 arteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

### **HIRUGARREN PUNTUA**

#### **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

SOLRED	68,61
TOLOMENDI	54,70
GUREAK	48,68
JUAN JOSE ARREGI	907,73
UDALATX	269,23
OSCAR GALINDO	133,10
ARGITU	241,58
GOIENER	8,89



ALKIZAKO UDALA

GOIENER	37,39
GOIENER	451,52
GOIENER	22,33
GOIENER	64,73
GOIENER	6,91
GOIENER	727,62
GOIENER	60,98
GOIENER	46,22
GOIENER	469,96
GOIENER	351,65
GOIENER	196,44
GOIENER	428,78
GOIENER	1.110,03
GOIENER	426,15
GOIENER	31,08
OTIS	504,32
ORANGE	35,27
NORTEGAS	75,85
NORTEGAS	400,57
NORTEGAS	238,73
PLASTICOS TECNICOS Y DERIVADOS	750,20
ARGITU	186,45
SOLRED	80,30
DIMARPE	222,74
KEY-LAN	5,01
ALKAIN	104,30
MAQUELSA	134,52
LYRECO	422,96
MICRONET	665,50
EUDEL	300,51
KOMUNIKAZIOA BIZIAGOA	162,00
QUISE	401,97
GUREAK MARKETING	2,87
GOIENER	254,85
GOIENER	14,22
GOIENER	9,31
GOIENER	276,39
GOIENER	26,44



ALKIZAKO UDALA

GOIENER	5,63
GOIENER	40,18
GOIENER	165,36
GOIENER	180,57
GOIENER	47,20
GOIENER	327,79
GOIENER	659,20
GOIENER	31,95
GOIENER	291,12
GOIENER	31,03
GOIENER	451,42
ALKIZAKO HERRI OSTATUA	30,00
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	188,88
DIMARPE	102,37
ANDUITZ ERAIKUNTZAK	3.950,65
OBBTKN	741,49

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **18.684,43** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

#### **LAUGARREN PUNTUA**

**ALKIZAKO UDALEKO LANGILE PUBLIKO IZATEKO HAUTAKETA-PROZESUETAN BITARTEKO ELEKTRONIKOEN BIDEZ ERLAZIONATZEKO BETEBEHARRA EZARTZEN DUEN ORDENANTZAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusita, Alkizako udaleko langile publiko izateko hautapen prozesuetan bitarteko elektronikoen bidez harremanak izateko ordenantza prestatu duela Alkizako udalak.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako udaleko langile publiko izateko hautapen prozesuetan bitarteko elektronikoen bidez harremanak izateko betebeharra arautzen duen ordenantzari hasierako onespena ematea.



ALKIZAKO UDALA

**BIGARRENA:** Espedientea jendaurrean jarriko da 30 laneguneko epean, hain zuzen ere iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunetik hasita. Epe horretan interesdun guztiek udal idazkaritzan espedientea aztertu ahal izango dute eta dagozkion, iradokizun edo erreklamazio jarri.

**HIRUGARRENA:** Aipaturiko epean, iradokizun edo erreklamaziorik ez badaude, Alkizako udaleko langile publiko izateko hautapen prozesuetan bitarteko elektronikoen bidez harremanak izateko betebeharra arautzen duen ordenantza behin betikoz onartutzat joko da.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

#### **BAKE EPAILEA ETA BERE ORDEZKOA HAUTATZEKO DEIALDIAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik 2023 urteko otsailaren 13an Euskal Autonomi Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkariak igorritako idatzia, non adierazten duen Alkizako Bake Epailea eta bere ordezkoa izendatuak izan ziren lau urteetako epea amaitzear dagoela eta Udalbatzarrak beste lau urtetarako izendatuak izan daitezen Bake Epaile berria eta bere ordezkoa proposatu behar dituela.

Ikusirik 2023 urteko otsailaren 27an Udaleko Behin Behineko Idazkari Kontu-hartzaileak idatzi duen txostenean dioena, zeinetan adierazten duen zein prozedura jarraitu behar den Bake Epailea eta bere ordezkoa hautatzeko eta zeintzuk diren hautagaiak bete beharreko baldintzak.

Gaia azterturik Udalbatzarrak aho batez ondorengoa,

#### ***ERABAKITZEN DU***

**LEHENA.-** Alkizako Udalerrian lau urteetarako izendatuko diren Bake Epailea eta bere ordezkoa hautatzeko deialdia egitea. Modu honetan hautagaiari legeak ezarritako baldintzaz gain ondorengoa baldintza galdatuko zaie: hautagaiak euskaraz jakitea.

**BIGARRENA.-** Deialdiaren iragarkia argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko Iragarki Taulan, web orrian eta Tolosako Lehen Instantzia eta Instrukzio Epaitegian. Aldi berean Alkizako herrian zehar deialdiaren bandoa zabalduko da. Modu honetan izen emateko epea



ALKIZAKO UDALA

zabalduko da iragarkia aipatu den tokietan argitaratu eta gehienez Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost lanegunetako epean.

### **SEIGARREN PUNTUA**

#### **TOLOSALDEKO LANDA GARAPENERAKO ELKARTEARI, TOLOMENDI-ri, 2023 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA**

Ikusirik Tolosaldeko Landa Garapen Elkarteak- "Tolomendi-k" aurkeztutako idatzia non 2023ko otsailaren 14ean ospatutako Batzar Orokorrean 2023 ekitaldirako Elkartearen aurrekontua onartu zela jakinarazten den.

Ikusirik 2023 ekitaldirako onartutako aurrekontuaren arabera Alkizako Udalari 2.778,09 euro ordaintzea dagokiola.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Tolosako Landa Garapen Elkarte-Tolomendiri 2.778,09 eurotako gastua onartzea eta ekarpena burutzea. Udal aurrekontuetako 422.943.01.01 partidaren kargura.

BIGARRENA.- 2023 urteko udal aurrekontu orokorrean kreditu nahikoa aurreikustea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

#### **ALKIZAKO UDALA ETA AIZTONDO KLASIKOA BATZORDEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN ONESPENA**

Bertaratuek, aho batez, gaia mahai gainean uzteko erabakia hartzen dute.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

#### **XIX.AIZTONDO KLASIKOA "PATXI ALKORTA MEMORIALA"-ri 2023 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZA BURUTZEA, HALA BADA**

Bertaratuek, aho batez, gaia mahai gainean uzteko erabakia hartzen dute.





ALKIZAKO UDALA

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA**

### **TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEAK "ATARIA", AURKEZTUTAKO 2022 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENA ONESTEA, HALA BADA**

Ikusirik Tolosaldeko Komunikazio Taldea E.M.-k, hau da, Tolosaldeko Atariak aurkezturiko 2022 urteko ekitaldiko memoria, gastu eta sarreraren xehetasunak eta gastu-agiriak, Talde honek eta Alkizako Udalaren artean sinatutako Lankidetzaren Hitzarmenean adierazten den bezala.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.-k aurkezturiko 2022 ekitaldiko memoria, gastu eta sarreraren xehetasunak eta gastu-agiriak onestea.

### **HAMARGARREN PUNTUA**

### **EUDEL-ek EGINIKO GOMENDIOAREN ONESPENA, 2023KO EKITALDIRAKO LANGILEEN ORDAIN SARIEI BURUZKOA, HALA BADA**

Ikusirik Eudel-ek eginiko gomendioa, non ondorengoa dioen:

### **"2023ko ORDAINSARIEN IGOERARI BURUZKO ZIRKULAR INFORMATIBOA**

2022.12.24an, BOEn **abenduaren 23ko 31/2022 Legea** argitaratu da, **2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa**.

Lege horrek III. Tituluko I. Kapituluaren arautzen ditu sektore publikoaren zerbitzura dauden langile-gastuak, eta, zehazki, 19. artikuluan, 2023ko ekitaldirako ordainsarien igoeren mugen gaiari heldu dio, eta honako hau arautu du:

**"19. artikulua. Jarduera ekonomiko-aren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen gastuei dagokienez.**

**(...) Bi. 1. 2023. urtean, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsariek ezingo dute ehuneko 2,5eko igoera orokorra izan 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudene-kiko, konparazioaren**



ALKIZAKO UDALA

***bi aldietarako homogeneousunari dagokionez, bai langileen kopuruari dagokionez, bai antzinatasunari dagokionez.***

***2. Halaber, hala badagokio, igoera hauek aplikatuko dira 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei dagokienez, eta bi kasuetan 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak:***

***a) Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren (KPIH) bilakaerari lotutako igoera. 2022ko KPIHaren eta 2023ko iraileko KPIH aurreratuaren batura ehuneko 6tik gorakoa bada, ehuneko 0,5eko gehieneko ordainsari-igoera gehigarria aplikatuko da.***

***b) Ondorio horietarako, Espainiako Estatistikako Institutuak (INE) 2023ko iraileko KPIH aurreratuaren datuak argitaratu ondoren, gehikuntza horren aplikazioa onartuko da Ministro Kontseiluaren Erabakiaren bidez, eta BOEn argitaratuko da.***

***c) Barne Produktu Gordin (BPG) nominalak 2023an izan duen bilakaerari lotutako igoera. BPG nominalaren hazkundera Jaurlaritzak Aurrekontuen Lege hau egitearekin batera doan koadro makroekonomikoan kalkulaturakoa bera edo handiagoa bada, ehuneko 0,5eko ordainsari igoera osagarria aplikatuko da.***

***Horretarako, INEk 2023ko BPGaren aurrerapen datuak argitaratu ondoren, gehikuntza hori aplikatzea onartuko da Ministro Kontseiluaren Erabakiaren bidez, eta BOEn argitaratuko da (...)***

Aurrekoa ikusita, eta EUDELeK aurreko ekitaldietako udaletako langileen ordainsari-igoerei dagokienez egin duen bezala, ordainsarien arloan 31/2022 Legeak izan ditzakeen interpretazioak argitze aldera, egokitzen jotzen da Euskadiko udalei honako hau adieraztea:

## **GOMENDIOA**

***a) Ordainsarien igoera orokorra legez onartutako mugaren arabera onartzea, hau da, ehuneko 2,5 handiagoa izatea 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean. Igoera orokor hori bi alderdietan berdina izan behar dira: langileen kopuruari dagokionez eta antzinatasunari dagokionez. Igoera 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin izan behar da. Hori guztia 2023ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 31/2022 Legearen 19-Bi-1 artikuluan xedaturakoaren arabera.***





ALKIZAKO UDALA

b) Aipatutako 31/2022 Lege horren 19-Bi-2 artikuluan xedatutakoari dagokionez, % 0,5eko igoera gehigarri bana aurreikusten duena, hau da, Kontsumo Prezioen Indize Harmonizatuaren (KPIH) bilakaerari eta Barne Produktu Gordinaren (BPG) 2023ko bilakaerari lotuta, Ministro Kontseiluaren Erabakian adierazitako egunetan xedatutako dutena betetzea gomendatzen da. Horretarako EUDELeK horren guztiaren berri emango du.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- 2023 ekitaldirako, langileen ordainsariei buruzko EUDEL-ek egindako gomendioa bere osotasunean onestea eta aplikatzea.

#### **HAMAIKAGARREN PUNTUA**

**BERANDOAINEN DAGOEN UR DEPOSITUA KONPONTZEKO EGIN DIREN INPERMEABILIZAZIO LANETAN EZUSTEKO LANEN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik 2022ko azaroaren 29an egindako udalbatzarrean, Berandoainen dagoen ur depositoa konpontzeko inpermeabilizazio lanak egiteko kontratua esleitu zitzaiola, Iretsa Ingenieria y realizaciones tecnicas, S.A. enpresari 7.390,26 eurotako diru-kopuruan.

Ikusita, aipaturiko lanak egiten hasi zirenean, eta konkretuki ur depositua hustu zenean, ur deposituko sapaian pitzadurak azaldu zirela, Alkizako udalak, beharrezkotzat jo zuelarik, ezusteko lan hauek egitea.

Gaia azterturik, udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Berandoainen dagoen ur depositua konpontzeko egin diren inpermeabilizazio lanetan azaldutako ezusteko lanen onespena, 4.720,00 euroko diru-kopuruko aurrekontua onesturik.

BIGARRENA: Lanak amaituta, Iretsa Ingenieria y realizaciones tecnicas, S.A., aurkezturiko kitapena onestea, ondorengoa izanik:



ALKIZAKO UDALA

-Onartutako aurrekontuaren ordeaz (7.390,26 euro) **5.544,70 euro + BEZ**

-Ezusteke lanak: **4.720,00euro+ BEZ**

HIRUGARRENA: 12.420,29 eurotako gastua onestea, eta bere ordainketa udal aurrekontuetako 623.161.00.02 "Ur saneamendua eta hornikuntza sarea" Kontu sailaren kontura izateko agindua ematea.

### **HAMABIGARREN PUNTUA**

#### **DANENA TXIRRINDULARITZA ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA**

Ikusirik Danena Txirrindularitza Elkarteak eginiko eskaera, non dioen, bailarako gazteekin txirrindularitza jarduera aurrera eramaten ditutela, baina jarduera hau aurrera eramateko finantzazioa behar dutela. Horregatik Aiztondo bailarako udaletxei diru-laguntza egiten die.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

**ERABAKITZEN DU:**

LEHENGOA.- Danena Txirrindularitza Elkarteari 500,00 eurotako ekarpena burutzea 2023ko Udal aurrekontuetako 481.340.00.99 Kontu sailaren kargura.

BIGARRENA.- 500,00 eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENA: Danena Txirrindularitza Elkarteari jakitera ematea, egin duen gastuen memori bat eta dagozkien fakturak aurkeztu beharko dituela, Udalak emandako diru-laguntza zurituaz.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri interesdunari ematea.

### **HAMAHIRUGARREN PUNTUA**

#### **BESTE BATZUK**

#### **13.1. ALKIZAKO HERRI OSTATURAKO PLANTXA BERRI BAT EROSTEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA**



ALKIZAKO UDALA

Alkizako Udalak beharrezkoa ikusten du Alkizako ostaturako plantxa berri bat erosteko kontratua esleitzea, aurrekoa hautsi egin da eta.

Ikusirik, Alkizako Udalak ez dituela baliabide pertsonal eta materialik lan hauek egiteko.

Alkizako udalak, helburu horretarako hiru aurrekontu eskatu ditu, ondorengoak izanik:

- Euskal Hotz, S.L.
- Comercial Hostelera del Norte Vizcaya, S.A.
- MAHI, S.L.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua arabera kontratu txiki baten aurrean gaude. *HORNIDURA* kontratu txiki baten aurrean.

*Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.*

*1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.*

*En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.*

*2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.*



ALKIZAKO UDALA

*3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º*

*4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.*

HORNIDURA kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Beraz, Toki jardunbidearen oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 legeak eta Azaroaren 8ko 9/2017 legeak (Sektore Publikoko Kontratazio arautzen duena) ematen dizkidan eskuduntzaz baliatuaz, ondorengo ERABAKIA hartzen dut:

LEHENA: Euskal Hotz S.L. enpresari, Alkizako ostatuko sukaldean jartzeko plantxa berri bat erosteko kontratua esleitzea 4.428,75€ diru kopuruan (BEZa kanpo), ordainketa **1.0000. 683.933.00.02** kontu sailaren kontura **“Herri ostatua”**.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei ematea.

### **13.2. 2022 EKITALDIKO UDAL AURREKONTU OROKORRAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA**

Ondoren batzarkideei 2022 ekitaldiko Udal Aurrekontu Orokorraren likidazioaren berri ematen da, 2023/12 zenbakia duen eta 2023ko martxoaren 6an Alkate Ebazpenez onartua izan zena:

### **12/2023 DEKRETUA**

Udal honen 2022ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren



ALKIZAKO UDALA

dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

### EBATZI DUT

**Lehena.-** Udal honen 2022ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

#### DIRUZAINZA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2022-12-31n:		136.512,98
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2022-12-31n:		200.487,06
Aurrekontuko zordunak :	188.651,61	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	11.835,45	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2022-12-31n:		74.791,42
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	19.631,05	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	55.160,37	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3):		262.208,62
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		262.208,62

#### AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	128.708,47
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-2.541,98
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	88.635,74



ALKIZAKO UDALA

4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	214.802,23

#### KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	310.765,25
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	440.543,69
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	751.308,94

**Bigarrena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena.-** Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Batzarkideak jakinaren gainean gelditzen dira.

### **13.3. UEMA, UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEARI 2020KO URTEARI DAGOKION EKARPENAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko batzar Nagusiak, 2022ko abenduaren 17an ospatutakoak, erabaki zuela UEMA ko kide diren herrien 2023rako kuotak onartzea.

Ikusirik, aipatutako batzar nagusian, erabaki zela Alkizako Udalak 2023 urtean 3.658,79 eurotako kuota bat ordaindu behar duela. Kuota lau zatitan banatzen delarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

**ERABAKITZEN DU:**





ALKIZAKO UDALA

LEHENA: Alkizako Udalak 2023 urtean 3.658,79 eurotako kuota bat ordaintzea UEMA-ri. Aipaturiko kuota, lau zatitan ordainduko delarik.

BIGARRENA: 3.658,79 eurotako gastua onestea, eta bere ordainketa burutu dadin agintzea, 2023ko udal aurrekontuetako 481.335.00.05 kontu sailaren kontura.

#### **13.4. AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2023KO 1. ETA 2. HIRUHILABETEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA**

Ikusirik Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2023 ekitaldiko 1. eta 2. hiru hilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Alkizako Udalak burutu beharreko ekarpena 14.000,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, Alkizako udalak eskatuta, ondoren zehazten den moduan banatzen da:

- Gizarte zerbitzuak: 10.500,00 euro
- Kultura: 3.500,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

#### **ERABAKITZEN DUTE**

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 14.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2023 ekitaldiko 1. eta 2. hiru hilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko udal aurrekontuetako "421.230.00.01 eta 421.330.00.01" kontu sailaren kargura. Kontzeptu hauetan banatuta:

- Gizarte zerbitzuak: 10.500,00 euro
- Kultura: 3.500,00 euro

BIGARRENA.- 14.000,00 eurotako gastua onartzea.

#### **13.5. AIZTONDO NESKIDE KIROL KLUBA-k EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA**



ALKIZAKO UDALA

Ikusirik Aiztondo Neskide Kirol Kluba-k eginiko eskaera, non dioen, bailarako emakumeen kirola bultzatzeko sortu berria den klub honek, futboleko 9 talde mantendu eta boleibolen infantil, kadete eta senior taldeak sortu nahi dituztela, horretarako ezinbestekoa da bailarako udalerrien diru-laguntza. Horregatik Aiztondo bailarako udaletxei diru-laguntza egiten die.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Neskide Kirol Kluba-ri 500,00 eurotako ekarpena burutzea 2023ko Udal aurrekontuetako 481.340.00.99 Kontu sailaren kargura.

BIGARRENA.- 500,00 eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENA: Aiztondo Neskide Kirol Kluba-ri jakitera ematea, egin duen gastuen memori bat eta dagozkien fakturak aurkeztu beharko dituela, Udalak emandako diru-laguntza zurituaz.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri interesdunari ematea.

#### **13.6.ALKIZAKO ERRETORE ETXEAN IGOGAILUAREN IPINTZEA ETA IRISGARRITASUN BALDINTZEN HOBEKUNTZA EXEKUZIO PROIEKTUAREN ONARPENA, HALA BADA**

Ikusita, Eba Erkizia Brion Arkitektuak, Alkizako Erretore etxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobekuntzarako egikaritze proiektua prestatu duela. Bere zenbatekoa BEZ barne 145.471,22 euro direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Eba Erkizia Brion Arkitektuak, Alkizako Erretore etxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobekuntzarako egikaritze proiektua onestea.

#### **HAMALAU GARREN PUNTUA**



ALKIZAKO UDALA

## **MOZIOAK, ERREGUAK ETA GALDERAK**

### **14.1. MARTXOAREN 8<sup>a</sup>, EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA ERAKUNDE ADIERAZPENAREN ONESPENA**

Ikusita, EUDEL-ek aurkezturiko erakunde adierazpena, martxoaren 8a, emakumearen nazioarteko eguna, non ondorengoa dioen:

#### **” 2023ko martxoaren 8rako EUDELeko Ereduzko Adierazpena**

25 urte baino gehiago igaro dira, Beijineko Adierazpenean eta Ekintza Plataforman, erabakiak hartzerako orduan, gizonen eta emakumeen artean parte-hartze politikoa eta boterearen banaketa orekatua lortzeko nazioarteko akordioa hartu zenetik. Nahiz eta aurrerakuntzak izan diren, munduko herrialde gehienek ez dute genero berdintasunik lortu, eta gutxi batzuk bakarrik ezarri edo bete dituzte sexuen arteko berdintasunean asmo handiko helburuak.

Egungo krisi anitzen testuinguru honetan, gizarte, ekonomia, ingurumen eta gobernantza ereduak birplanteatu nahi dira, berdintasun-arrakalak gutxitzeko asmoarekin, arrakala horiek gizartearen zati handi batentzat handitu direlako eta, batez ere, emakumeentzat. Orain da liderrak izateko garaia, erakundeak eta gizarteak eraldatzeko harreman-eredu askoz ere inklusiboagoak, kooperatiboagoak eta sortzaileagoak lortzeko. Sektore anitzeko lankidetzako gobernantza feministaren eredu baterantz aurrera egin behar da, elkar entzutean oinarrituz, baita botere eta erantzukizunen banaketa eta partaidetza-prozesuak abian jartzean ere.

Mugimendu eta talde feministak eta emakumeenak, aniztasunean eta belaunaldien artean, berdintasunaren inguruko hainbat gai salatzeko eta eskatzeko mobilizatzen ari dira. Adibidez, arrazakeriaren kontrako justiziatik hasi eta soldata-berdintasuneraino, indarkeriaren amaiera eta emakumeen aurkako diskriminazioa, sexu-jazarpenaren ezabatzea, klimaren aldeko justizia, bakea mantentzea, eta hainbat gehiago.

Emakumeek politikan eta erabakiak hartzerakoan berdintasunean parte hartzea eta lidergoa izatea funtsezkoak dira, 2030an, Garapen Jasangarriaren Helburuak lortzeko. Hala ere, tokiko eremutik orokorrera, emakumeen parte-hartzea mugatua izaten jarraitzen du, alderdi formaletako erabakiak hartzerakoan, besteak beste, politika gaietan, administrazio publikoan, enpresa pribatuetan, unibertsitatean, sindikatuetan, elkarte eta kooperatibetan, eta beste hainbat sektoretan.

Martxoaren 8 honetan, emakumeen nazioarteko egunean, lehentasunezkoa da emakumeen lidergoak sustatzea, gobernantza feministaren eta lidergo



ALKIZAKO UDALA

partekatua eredu batetik abiatuta. Era berean, berdintasun arloan erabakiak hartzean, emakumeen parte-hartzea areagotzeko baldintzak sortzearen alde lan egin behar da. Emakumeen parte-hartzea ikuspegi askoz ere zabalago batetik ulertu behar da, ez bakarrik ikuspegi formal edo arauemaitetik. Emakumeek erabakiguneetan parte hartzeko dituzten baldintzak aldatu behar ditugu.

Emakumeen parte-hartzearen alde lan egiteko, beharrezko da...

- botere-espazioak partekatzea eta uzteak eragozten dituzten **erresistentziei eta inertziei** aurre egitea. Horretarako, kristalezko sabaiak hautsi behar dira, espazio guztietan, aniztasun osoan eta ikuspegi intersektionalarekin emakumeen presentzia bermatuko duten neurriak ezarriz.
- **zaintza-lanen banaketa erantzunkidean** aurrera guztiz egitea, justizia-printzipioa delako eta emakumeen gainkargak herritartasun osoa egikaritzea mugatzen duelako.
- **zaintza** eta bestelako lan feminizatuen **sektore profesionala** prekarizatuak balioestea, eta sektore horri gizarte-balioa aitortzea, bere baldintzak hobetuz.
- emakumeek lidergoetan duten konfiantza, sinesgarritasuna eta eragina mugatzen duten **estereotipo eta aurreiritziei** aurre egitea.
- **emakumeen aurkako indarkeria**-mota guztiak desagerraraztea, baita emakumeen aurkako indarkeria politikoa ere.
- **lidergoan jarduteko praktikak eta moduak** deseraikitzea, besteak beste, menderatzean oinarritutako eredu androzentrikoak, zaintzaren denborak eta erantzukizuna kontuan hartu gabe, emakumeen eta boteretik baztertutako beste kolektibo batzuen talentua eta jakintzak mesprezaturik, eta talde-lana ez baloratuz.
- **emakumeen eta nesken eskubideak** ikuspegi intersektionala, berritua, erradikala eta eraldatzailea duen agenda feministaren erdigunean jartzea, emakume horiek boterean duten bazterketa sistematikoari aurre egiteko eta desberdintasun-arrakalak murrizteko.

Horregatik, euskal udalerririk, gure eskumenean markoan, **konpromisoa hauek hartzen ditugu**: emakumeen lidergoa bultzatzea eta boterea berdintasunean egikaritzeko baldintzak erraztea. Estamentu publiko eta probatu guztietan emakumeen ahalduntzea eta parte-hartzea sustatzen duten politikak indartzea da helburua, martxoaren 3ko 1/2022 Legean, Emakume eta Gizonen berdintasunerako legearen bigarren aldatutako buruzkoan, ezarritakoaren arabera:



ALKIZAKO UDALA

1. Emakumeen Etxeak sortzeko prozesu parte-hartzaileekin hastea, udalerrri bakoitzaren beharretara egokituta.
2. Ahalduentze programak eta eskolak baliabide eta leku egokiez hornitzea
3. Mugimendu feministaren eta emakume-elkarteen parte-hartzea indartzea, emakumeen/berdintasunaren tokiko kontseiluetan, erabaki partekatuak hartzeko konpromiso sendo batetik abiatuta.
4. Berdintasun-planen interseksionalitatea indartzea gure gizartea osatzen duten eremu guztietan, emakumeek beraien aniztasunean duten parte-hartze osoa eta eraginkorra finkatzera iristeko.
5. Adinaren eta generoaren arabera bereizitako datuak sortzea, 1/2022 Legearen aginduak dakarrena kontuan hartuz, neskatilen, neska nerabeen eta emakumeen bizitzetan eragin zuzena izango duten politikak egiteko informazioa emateko
6. Politikan sartzen diren emakumeentzako ikaskuntza- eta ahalduentze-guneak antolatzea, emakume hautetsien arteko laguntza-, elkartasun- eta aliantza-sareen bidez, adibidez, Basqueskola Sarea, edo beste sare batzuk

EUDELERi eskatzea, indarkeria politikoari aurre egiteko protokoloak proposa ditzala, emakumeen parte hartzeari eta erabakitze gaitasunari buruzko ikerketa.”

Gaia azterturik, Udalbatzak, aho batez, EUDELEK aurkezturiko, martxoaren 8a, emakumearen nazioarteko eguna dela eta erakunde adierazpena onesten du.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 20.54 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*

